Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala · Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko abenduaren 4a, osteguna — 233 — Jueves, a 4 de diciembre de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA · 3 · ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DEBAKO UDALA

*Iragarkia*

Azaroaren 27ko Alkatetzaren 603/2025 Dekretuaren bidez, honako erabaki hau ebatzi da:

«*Lehena.* Onartzea Debako Udaleko Idazkaritza lanpostua (bigarren mailakoa) bitarteko izaeraz betetzeko deialdia, lehiaketa-oposaketa sistema bidez.

*Bigarrena.* Deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzea.

Oinarri horiek erabaki honen eranskin gisa jasotzen dira.

*Hirugarrena.* Deialdia, eta dagozkion oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Debako Udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratzea.»

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Horren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Tokiko Gobernu Batzarrari, erabaki hau argitaratu biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu berraztertzekoa berariaz ebatzi edo ustezko ezespena gertatzen den arte.

Hori guztia bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso jartzearen kalterik gabe.

Deba, 2025eko azaroaren 27a.—Alazne Txurruka Allika, alkatea. (8192)

ERANSKINA

*Debako Udaleko Idazkaritza lanpostua (bigarren mailakoa), bitarteko izaeraz betetzeko oposizio-lehiaketaren oinarri arautzaileak.*

*Lehena. Deialdiaren xedea.*

Deialdiaren xedea da Debako Udalean hutsik dagoen Idazkaritza lanpostua (bigarren mailakoa) bitarteko funtzionario batek betetzeko hautaketa prozesua egitea, oposizio-lehiaketa sistema bidezkoa, lanpostu hori gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioko funtzionario batek bete arte.

Plaza hori Debako Udaleko plantillan txertatuta dago; eta lanpostua honela definituta dago lanpostuen zerrendan:

— *Lanpostua:* Idazkaria.
*Eskala:* Izaera nazionaleko gaikuntza.
*Azpieskala:* Idazkaritza.
*Maila:* Bigarrena.
*Taldea:* A1.
*Lanpostu mailako osagarria:* 29.

## AYUNTAMIENTO DE DEBA

*Anuncio*

Por Decreto de Alcaldía 603/2025, de 27 de noviembre, se ha resuelto lo siguiente:

«*Primero.* Aprobar la convocatoria para la cobertura en régimen de interinidad del puesto de Secretaría (clase segunda) del Ayuntamiento de Deba, por el sistema de concurso-oposición.

*Segundo.* Aprobar las bases que regirán dicha convocatoria.

Las citadas bases se recogen como anexo de este acuerdo.

*Tercero.* Publicar dicha convocatoria y sus correspondientes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, así como en el tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento de Deba.»

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo las personas interesadas podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de este acuerdo.

No obstante, las personas interesadas podrán interponer con carácter previo recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación del acuerdo. En tal caso, no podrá interponerse recurso contencioso-administrativo hasta que se resuelva expresamente el de reposición o se produzca la desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime procedente.

Deba, a 27 de noviembre de 2025.—La alcaldesa, Alazne Txurruka Allika. (8192)

ANEXO

*Bases reguladoras del concurso-oposición para la cobertura con carácter de interinidad del puesto de Secretaría (clase segunda) del Ayuntamiento de Deba.*

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de la presente convocatoria la realización del proceso selectivo para la cobertura, con carácter de interinidad, mediante el sistema de concurso-oposición, del puesto de Secretaría (clase segunda) vacante del Ayuntamiento de Deba, hasta sea cubierto por funcionario o funcionaria de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

Dicha plaza se integra en la plantilla del Ayuntamiento de Deba; y el puesto está definido en la relación de puestos de trabajo como:

— *Puesto:* Secretario/a.
*Escala:* Habilitación de carácter nacional.
*Subescala:* Secretaría.
*Clase:* Segunda.
*Grupo:* A1.
*Complemento de destino:* 29.

EK\CV GAO-I-2025-08192

*Berariazko osagarria:* 1.925 € (behin betiko balorazioaren menpe).

*Hizkuntza-eskakizuna:* C2C2, nahitaezkoa.

*Derrigortasun data:* 1990-07-31.

*Bigarrena. Parte hartzeko baldintzak.*

Hautaketa probetan parte hartu ahal izango dute eskaera orriak aurkezteko epearen azken egunean honako baldintza hauek betetzen dituzten izangaiek:

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

b) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adinera ez iristea.

c) Gaitasun funtzionala izatea, lanpostuaren berezko zereginak betetzeko (baldintza hori dagokionean egiaztatuko da mediku azterketaren bidez).

d) Diziplina espediente bidez edozein herri administraziotako edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoetako zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizialaren bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaikuntza absolutu edo berezirik ez izatea, ez eta lan kontratuko langileen kasuan betetzen zituzten, antzeko eginkizunak betetzeko desgaikuntza absolutu edo berezirik ere, langile horiek bereizi edo desgaitu badituzte.

e) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoak) A1 azpitaldeko kidego eta eskaletara iritsi ahal izateko eskatzen duen unibertsitate titulua edukitzea; hau da, lizentziatura edo graduko titulua edukitzea, edo hori eskuratzeko eskubideak ordaindua izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, beren homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da. Horrelakorik ez dute beharko, araututako lanbideen eremuan, Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenen arabera aitortutako lanbide kualifikazioa dutenek.

f) Euskarazko C2C2 Hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea izatea, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan eta azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (euskara jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzekoan) eta haren aurreragoko aldaketetan xedatutakoari jarraituz.

Hala eta guztiz ere, 19/2024 Dekretuaren 37.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, baldin eta hautagaietako inork ez badu C2C2 HE duela frogatzen, lanpostuari C1C1 HE aplikatuko zaio, soil-soilik deialdi honetan lanpostua betetzeko eta prozesutik sortutako lan poltsan parte hartzeko.

g) Ezintasun kasuetan sartuta ez egotea eta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak bateraezintzat jotako jarduerarik ez egitea, betiere legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea alde batera utzita.

h) Aurretiazko eskaera egitea.

i) Deialdian parte hartzeko inskribatzeagatik ezarritako tasa ordainduta izatea.

Eskaera orriak aurkezteko epearen bukaeran, oinarri honetan aipatutako baldintza guztiak bete beharko dira; eta egoera horri eutsi egin beharko zaio lanpostuaz jabetu arte, bitarteko funtzionario izendatu ondoren.

*Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.*

3.1. Eskabideak www.deba.eus web orrian dagoen Debako Udalaren egoitza elektronikoko deialdiaren fitxan argitaratutako inprimakiaren arabera egokituko dira, 39/2015 Legearen

*Complemento específico:* 1.925 € (pendiente de valoración definitiva).

*Perfil lingüístico:* C2C2, preceptivo.

*Fecha de preceptividad:* 31-07-1990.

*Segunda. Requisitos de participación.*

Podrán tomar parte en las pruebas selectivas quienes reúnan los siguientes requisitos en la fecha en que finalice el plazo de presentación de instancias:

a) Tener la nacionalidad española.

b) Haber cumplido 16 años y no haber alcanzado la edad de jubilación forzosa.

c) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas propias de la plaza (este extremo se acreditará en su momento mediante el correspondiente reconocimiento médico).

d) No haber sido separado o separada mediante expediente disciplinario del servicio de cualesquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o separada, o inhabilitado o inhabilitada.

e) Estar en posesión del título universitario exigido por el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de otubre, para el acceso a los cuerpos y escalas del subgrupo A1, es decir, estar en posesión o haber abonado los derechos para su adquisición de la licenciatura o grado.

En el caso de titulaciones extranjeras se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación. Este requisito no será de aplicación a quienes hubieran obtenido el reconocimiento de su cualificación profesional, en el ámbito de las profesiones reguladas, al amparo de las disposiciones de Derecho de la Unión Europea.

f) Estar en posesión del perfil lingüístico C2C2 de euskera o equivalente, de conformidad con lo previsto en el Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco y el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas y sus posteriores modificaciones.

No obstante, en virtud de lo dispuesto en el artículo 37.4 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, en caso de no acreditarse el perfil lingüístico C2C2 por ninguna de las personas aspirantes, se aplicará a dicho puesto el perfil lingüístico C1C1 a los únicos efectos de la cobertura en esta convocatoria y para forma parte de la bolsa de trabajo resultante.

g) No hallarse incurso o incursa en causas de incapacidad y no desempeñar actividades declaradas incompatibles por la Ley 53/1984 de 26 de diciembre, dejando a salvo el derecho de opción que ésta le otorgue.

h) Formular solicitud previa.

i) Haber abonado la tasa por inscripción establecida en la convocatoria.

Los requisitos enumerados en esta base deberán poseerse en el momento de finalizar el plazo de presentación de instancias; y se deberán mantener hasta el momento de la toma de posesión del puesto, tras el nombramiento como funcionario/a interino/a.

*Tercera. Presentación de instancias.*

3.1. Las instancias se ajustarán según impreso publicado en la ficha de la convocatoria en la sede electrónica del Ayuntamiento de Deba ubicada en la página web www.deba.eus, de

66.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta tasa ordainduta gauzatu beharko dira, jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen Ordenantzaren arabera.

Aurrekoaz gain, eredu ofiziala eta normalizatua ere eskuragarri egongo da Debako Udaleko herritarren arretarako bulegoan, eskabideak aurkezteko epea irekitzen den unean.

3.2. Eskabideak Debako Udaleko alkateari zuzenduko zaizkio; behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu behar dira; eta bertan eskatzaileek adierazi behar dute bigarren oinarrian jasotako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela eskaera orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

3.3. Eskabideak, behar bezala beteta, Debako Udaleko Erregistro Orokorrean, ahal dela, elektronikoki aurkeztu beharko dira, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 10 egun balioduneko epean.

Eskabidea elektronikoki aurkezteko, egoitza elektronikoa erabiliko da: www.deba.eus.

Halaber, eskabideak Debako Udalaren herritarrentzako arreta Zerbitzuan aurkez daitezke.

3.4. Eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

— Nortasun Agiriaren fotokopia.

— Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia.

— Euskararen 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna (HE) edo baliokidea den egiaztatzeko agiria, deialdiaren zazpigarren oinarrian xedatutakoari jarraiki.

— Lehiaketa faserako alegatutako merezimenduen zerrenda. Ez da balioetsiko eskabidean alegatutakoez besteko merezimendurik; eta inola ere ez da kontuan hartuko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako merezimendurik.

— Tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.

3.5. Hautaketa-prozesuan izena emateko tasa ordaintzea.

3.5.1. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko ordaindu beharreko tasa 15,00 eurokoa da, hala xedatzen baitu jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen Ordenantza arautzaileak.

3.5.2. Tasa autolikidazio-erregimenean eskatuko da, eta Ordenantzan ezarritako baldintzetan.

Tasa ordaintzeak ez du ordezten, inolaz ere, parte hartzeko eskaera oinarri hauetan xedatutako epean eta moduan aurkezteko izapidea.

Eskabideak aurkezteko epean tasa ordaintzea ez bada edo osorik ordaintzen ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

3.6. Probak egiteko denbora edo bitartekoak egokitzea behar duten hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute. Epaimahai Kalifikatzaileak hautaketa probak egiteko behar diren egokitzapenak egingo ditu, baldin eta horiekin ez bada edukia indargabetzen edo eskatu beharreko gaitasun maila ez bada gutxitzen edo urritzen. Halaber, alegatutako inguruabarrak frogatzeko dokumentazioa eskatu ahalko du.

*Laugarrena. Izangaiak onartzea.*

4.1. Eskaera orriak aurkezteko epea amaituta, alkateak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak, epaimahaiaren osaketa eta oposaketaren ariketa zein egunetan egingo den iragartzeko. Horiek, Gipuzkoako Aldiz-

acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015 y se deberá formalizar con el pago de la tasa de acuerdo con la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

Además de lo anterior, también estará disponible el modelo oficial y normalizado en la oficina de atención al ciudadano del Ayuntamiento de Deba en el momento de apertura del plazo para la presentación de instancias.

3.2. Las instancias se dirigirán a la alcaldesa del Ayuntamiento de Deba, debiendo presentarse debidamente cumplimentadas y firmadas, y haciendo constar en ellas que se reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la base segunda, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

3.3. Las solicitudes se presentarán, debidamente cumplimentadas, preferentemente de forma electrónica en el Registro General del Ayuntamiento de Deba, dentro del plazo de 10 días hábiles contados desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La presentación de la solicitud por vía electrónica se realizará a través de la sede electrónica: www.deba.eus.

Así mismo, la solicitud podrá cumplimentarse acudiendo a la oficina de atención ciudadana del Ayuntamiento de Deba.

3.4. Documentación a presentar junto con la instancia:

— Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

— Copia del título exigido para participar en la convocatoria.

— Copia del título de acreditación del perfil lingüístico (PL) 3 o 4 de euskera, conforme a lo establecido en la base séptima de la convocatoria.

— Relación de los méritos alegados para la fase de concurso. No se valorarán méritos distintos a los alegados en la instancia de solicitud; y en ningún caso se tendrán en cuenta méritos adquiridos con posterioridad a la finalización del plazo de presentación de instancias.

— Documento acreditativo del pago de la tasa.

3.5. Abono de la tasa para la inscripción en el proceso selectivo.

3.5.1. Para participar en el proceso selectivo es preciso abonar una tasa de 15,00 euros, de conformidad con lo dispuesto en la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

3.5.2. La tasa se exigirá en régimen de autoliquidación, en los términos establecidos en la Ordenanza.

En ningún caso el pago de la tasa supondrá la sustitución del trámite de presentación, en tiempo y forma, de la solicitud de participación de acuerdo con lo dispuesto en las presentes bases.

El impago o pago incompleto de la tasa en el plazo de presentación de instancias supondrá la exclusión del proceso selectivo.

3.6. Las personas aspirantes que precisen adaptaciones de tiempo o medios para realizar las pruebas lo harán constan en la solicitud. El Tribunal Calificador establecerá las adaptaciones precisas para la realización de las pruebas selectivas, siempre que con ello no se desvirtúe su contenido ni se reduzca o menoscabe el nivel de aptitud exigible. Podrá solicitar asimismo documentación acreditativa de las circunstancias alegadas.

*Cuarta. Admisión de aspirantes.*

4.1. Finalizado el plazo de presentación de instancias, la Alcaldía dictará resolución aprobando las listas provisionales de personas admitidas y excluidas, la composición del Tribunal y la fecha de celebración del ejercicio de oposición. Estas listas se

EK\CV GAO-I-2025-08192

kari Ofizialean, Debako Udaleko iragarki taulan eta udal webgunean (www.deba.eus) argitaratuko dira.

Ondorengo iragarkiak, aldiz, udaletxeko iragarki taulan eta udal webgunean (www.deba.eus) argitaratuko dira.

Behin-behineko zerrenda eta ondorengo egunetik hasita, izangaiek erreklamazioak aurkezteko edo eskabideak zuzentzeko 5 egun balioduneko epea izango dute.

Behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira, baldin eta erreklamaziorik edo zuzenketarik egiten ez bada. Erreklamazio edo zuzenketaren bat izanez gero, beste ebazpen baten bitartez onetsiko edo ezetsiko dira; eta halaber, ebazpen horren bitartez onartuko dira behin betiko zerrendak, eta arestian adierazitako eran argitaratuko dira.

4.2. Onartuen artean agertzen diren izangaiek egin ahal izango dituzte probak, bai eta baztertuen artean agertu arren aurkaratzeko bitartekoak jarri dituztela egiaztatzen dutenek ere, baldin eta horiek ebazteko zain badaude. Erreklamazioaren emaitza ezezkoa bada, izangai hori prozesutik kanpo geratuko da behin betiko.

*Bosgarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.*

5.1. Epaimahaia epaimahaiburuak, hiru mahaikidek eta Epaimahaiko idazkariak osatuko dute; denak ala denak, enplegatu publikoak, deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren maila akademiko bereko edo goragoko titulua dutenak; eta erdiek gutxienez ezagutza edo arlo berekoa (espezialitate printzipioa betetzeko).

Gainera, epaimahaia osatzeko, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onetsitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.10 eta 21. artikuluetan ordezkaritza orekatuari buruz xedatutakoa bete beharko da; baita Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 81.4 artikuluan aurreikusitakoa ere.

Abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Epaimahaiak ebatzi ahalko du haren lanetan aholkulari espezialistek parte hartzea hautaketa prozesua osatzen duten proba guztietarako edo batzuetarako, zeinak haien espezialitate teknikoetara mugatuko baitira.

5.2. Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan abstentzioari eta errekusazioari buruz aipatzen dena ezarriko zaie epaimahaikideei.

Epaimahaiaren jarduera bat etorriko da, halaber, kide anitzeko organoei buruz 40/2015 Legean jasota dauden xedapenekin.

5.3. Epaimahaia behar bezala eratutzat jotzeko, bilerak egiteko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartzeko, bertan egon beharko dute epaimahaiburuak eta idazkariak, edo horien ordezkoek, eta, gutxienez, epaimahaikideen erdiek.

Karguak hutsik daudelako, kanpoan direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste arrazoiren bat tarteko dela, epaimahaiburua eta horren ordezkoa bertaratu ezin badira, epaimahaikideen artean hierarkia, antzinatasun eta adin handiena duen epaimahaikideak ordezkatuko ditu, hurrenkera horretan.

Karguak hutsik daudelako, kanpoan direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste arrazoiren bat tarteko dela, idazkaria eta horren ordezkoa bertaratu ezin badira, gehiengoaren akordioaren bidez aukeratutako epaimahaikideak egingo ditu idazkari lanak.

Epaimahaia osatzen duten pertsona guztiek izango dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, idazkariak izan ezik, hark soilik izango baitu hitza. Nolanahi ere, aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera idazkari-lanak egiten dituenak boto-eskubideari eutsiko dio.

publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del ayuntamiento de Deba y la web municipal (www.deba.eus).

Los anuncios sucesivos se publicarán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web (www.deba.eus).

A partir del día siguiente al de la publicación de la lista provisional, las personas aspirantes dispondrán de un plazo de 5 días hábiles para presentar reclamaciones o subsanar solicitudes.

Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se producen reclamaciones o subsanaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se aprueben las listas definitivas; que se harán públicas, asimismo, en la forma indicada.

4.2. Podrán realizar las pruebas las personas aspirantes que figuren como admitidas, así como aquellas personas que, figurando como excluidas, acrediten haber interpuesto el o los correspondientes medios de impugnación, y éstos estén pendientes de resolución. Si el resultado de su reclamación fuese desestimatorio, la persona aspirante referida quedaría definitivamente excluida del proceso.

*Quinta. Tribunal Calificador.*

5.1. El Tribunal estará integrado por la presidencia, tres vocales y la Secretaría del Tribunal; todas las personas serán empleadas públicas con titulación académica de nivel igual o superior al exigido para tomar parte en la convocatoria, y al menos la mitad de sus miembros con titulación correspondiente a la misma área de conocimientos (por el principio de especialidad).

Asimismo, en lo que a la composición del Tribunal se refiere, se estará a lo establecido sobre la representación equilibrada en los artículos 3.10 y 21 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo) y en el artículo 81.4 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

El Tribunal podrá disponer la incorporación a sus trabajos de asesores/as especialistas, para todas o alguna de las pruebas de las que conste el proceso selectivo, que se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas, a tenor de lo establecido en el artículo 81.9 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre.

5.2. A las personas que constituirán el tribunal les serán de aplicación los supuestos de abstención y recusación de los artículos 23 y 24 de Ley 40/2105, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

La actuación del tribunal se ajustará también a las disposiciones sobre órganos colegiados contenidas en la Ley 40/2015.

5.3. Para la válida constitución, celebración de sesiones, deliberaciones y toma de decisiones del tribunal, deberá estar presente el o la presidenta y el o la secretaria, o quienes les sustituyan, y al menos la mitad de los y las vocales.

En caso de vacante, ausencia, enfermedad u otra casusa legal del o de la presidenta y su suplente, serán sustituidos o sustituidas por el o la vocal de mayor jerarquía, antigüedad y edad, por este orden.

En caso de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal del o de la secretaria y su suplente, serán sustituidos o sustituidas por el o la vocal que se designe por acuerdo mayoritario del tribunal.

Todas las personas que componen el tribunal tendrán derecho a voz y voto, excepto el o la secretaria que sólo tendrá voz. En todo caso, quien ejerza las funciones de secretaría conforme a lo establecido en el párrafo anterior conservará su derecho a voto.

Epaimahaiaren erabakiak bertaratutakoen botoen gehiengoaren bidez hartuko dira. Berdinketak epaimahaiburu gisa diharduen pertsonak izango duen kalitatezko botoak desegingo ditu.

5.4. Epaimahaiak erabateko autonomia izango du funtzionatzeko; bestalde, prozeduraren gardentasunaz eta objektibotasunaz, proben edukiaz eta deialdiaren oinarriak hertsiki betetzeaz arduratuko da.

Horretaz gain, antolamendu juridikoaren arabera, oinarri hauek ezartzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta beharrezkoak diren akordioak hartuko ditu deialdia era egokian garatu dadin. Halaber, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuak direla eta hartu behar diren irizpide guztiak ezarriko ditu.

Epaimahaiaren ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egiteko eskumena duen organoarentzat. Edonola ere, organo horrek ebazpen horiek berrikusi ahal izango ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusita dagoenaren arabera.

5.5. Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahai kalifikatzailearen helbidea honakoa izango da: Debako Udala, Portu kalea 1, Deba.

5.6. Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluak xedatutakoaren ondorioetarako, hautaketa-prozeduratik eratorritako administrazio-egintzak udalaren web-orrian (www.deba.eus) argitaratuko dira; jakinarazpena ordezkatuz eta ondorio berak sortuz.

5.7. Epaimahaiak hautagaiei egiten dien edozein errekerimendu bitarteko elektroniko bidez egingo ditu.

*Seigarrena. Hautaketa prozesua.*

6.1. Hautaketa oposizio-lehiaketa sistemaren bitartez egingo da.

6.2. Oposizio-fasearen garapena.

6.2.1. Oposizio aldiaren ariketak egiteko tokia eta egunak Debako Udaleko iragarki taulan eta udal webgunean (www.deba.eus) argitaratuko dira.

6.2.2. Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie. Epaimahaiak ezinbestekotzat jotako kasuetan izan ezik, ezarritako egunean eta orduan ariketa egitera agertu ez diren izangaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, eta deialdi honetan izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

Epaimahaiak ariketa egiteko denbora eta baliabideak egokituko ditu desgaitasuna duten izangaientzat, baldin eta egokitzapena behar badute eta eskaeran horrelakorik eskatu badute, hartara, parte hartzen duten gainerako pertsonek dituzten aukera berdinak izan ditzaten, baldin eta horrekin probaren edukia indargabetzen ez bada eta eskatutako gaitasun maila murrizten edo gutxitzen ez bada.

Prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten baldin badu izangairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, izangai hori deialditik kanpo utziko du, interesdunari entzunaldia eman ondoren. Halaber, egun horretan bertan, horren berri emango dio hautaketa prozesua deitu duen organoari.

6.2.3. Epaimahaiak, une oro, behar bezala identifikatzeko eska diezaieke izangaiei. Hori dela eta, oposizio aldiko ariketa guztietara joan beharko dute NANarekin edo, epaimahaiaren iritziz, izangaiaren nortasuna egiaztatzeko nahikoa izango den beste agiri ofizial batekin (pasaportea, gidabaimena, AIZ, etab.).

6.2.4. Ariketa idatziak egiteko orduan, epaimahaiak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, ahal den guztian, izangaien anonimotasuna bermatzeko.

Los acuerdos del tribunal se adoptarán por mayoría de votos de las personas asistentes. Los empates se resolverán por el voto de calidad de quien ejerza la presidencia.

5.4. El tribunal actuará con plena autonomía funcional, siendo responsable de la transparencia y objetividad del procedimiento, del contenido de las pruebas y del estricto cumplimiento de las bases de la convocatoria.

Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, resolverá todas las dudas que surjan en la aplicación de las presentes bases y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de la convocatoria, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en ellas.

Las resoluciones del tribunal serán vinculantes para el órgano al que competa el nombramiento, sin perjuicio de que éste pueda proceder a su revisión conforme a lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5.5. A los efectos de comunicaciones y demás incidencias, el tribunal calificador tendrá su domicilio en: Ayuntamiento de Deba, Portu kalea 1, Deba.

5.6. A los efectos de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas, los actos administrativos que deriven del procedimiento selectivo serán objeto de publicación en la página web municipal (www.deba.eus), sustituyendo la notificación y surtiendo sus mismos efectos.

5.7. Cualquier requerimiento que el tribunal realice a las personas aspirantes se realizará por medios electrónicos.

*Sexta. Proceso de selección.*

6.1. La selección se realizará mediante el sistema de concurso-oposición.

6.2. Desarrollo de la fase de oposición.

6.2.1. El lugar y fechas de los ejercicios de la fase de oposición se publicarán en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Deba (www.deba.eus).

6.2.2. Las personas aspirantes serán convocadas en llamamiento único. Salvo causas de fuerza mayor apreciadas por el tribunal, las personas aspirantes que no hayan comparecido a la celebración del ejercicio en el día y hora establecidos serán excluidos del proceso selectivo y perderán todos los derechos que hubieran podido ostentar en esta convocatoria.

El tribunal adaptará el tiempo y los medios de realización del ejercicio a aquellas personas aspirantes discapacitadas que precisen adaptación y la hubieren solicitado en la instancia, de forma que gocen de igualdad de oportunidades con el resto de personal participante, siempre que con ello no se desvirtúe el contenido de la prueba, ni se reduzca o menoscabe el nivel de actitud exigido.

Si en cualquier momento del procedimiento llegara a conocimiento del tribunal que alguna de las personas aspirantes carece de los requisitos exigidos en la convocatoria, se le excluirá de la misma, previa audiencia de la persona interesada, dando cuenta el mismo día, al órgano que haya convocado el proceso selectivo.

6.2.3. El tribunal, en todo momento, podrá requerir a las personas aspirantes su correcta identificación. Por ello, deberán acudir a todos los ejercicios de la oposición con el DNI u otro documento oficial que, a juicio del tribunal, sea suficiente para acreditar la identidad de la persona aspirante (pasaporte, permiso de conducir, NIE, etc.).

6.2.4. En la realización de ejercicios escrito, el tribunal adoptará las medidas necesarias para garantizar, en todo lo posible, el anonimato de las personas aspirantes.

EK\CV GAO-I-2025-08192

6.2.5. Ariketen kalifikazioak argitaratu ondoren, hautagaiek 3 egun balioduneko epea izango dute ariketak berrikustea eskatzeko edo egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori amaituta eta, hala badagokio, aurkeztutako erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak probaren behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

6.2.6. Emaitzak 4. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko dira.

6.3. Oposizio aldiko ariketak.

— Oposizio faseko lehen ariketa: proba teorikoa, nahitaezkoa eta baztertzailea izango da.

Epaimahaiak zehazten duen denboran, idatziz erantzun beharko zaio, aukeratzeko erantzun anitz dituen galdera-sorta bati. Galdera bakoitzeko erantzun bakarra izango da zuzena.

Galdera horiek deialdiaren oinarrien I. eranskinean erantsi diren gaiei buruzkoak izango dira.

Ariketa hori epaimahaiak kalifikatuko du, eta gehienez 100 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko dira. Hala eta guztiz ere, hautagaien % 40k ez badu gutxieneko puntuazio hori lortzen, gutxieneko puntuazioa izango da aurkeztu diren hautagaien % 40k gainditzea dakarrena. Hala bada, gutxieneko puntuazio hori lortzen duen orok gaindituko du ariketa.

Ariketa horretan, akats bakoitzak asmatzearen balioaren heren bat kenduko du; hau da, galdera bat asmatzearen balioa kenduko da hiru erantzun okerreko. Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitzak ez dute zigorrik izango.

— Oposizio faseko bigarren ariketa: proba teoriko-praktikoa, nahitaezkoa eta baztertzailea izango da.

I. eranskineko gai-zerrendan jasotako gaien inguruko kasu praktikoak edota galdera teoriko-praktikoak erantzun beharko dira.

Ariketa hori epaimahaiak kalifikatuko du, eta gehienez 50 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko gutxienez 25 puntu lortu beharko dira.

*Zazpigarrena. Euskara.*

Euskararen ezagutza maila egiaztatutako da kasuan-kasuko hizkuntza-eskakizuna (C2C2 ala C1C1 HE) izatea egiaztatzen duen agiri hauetakoren bat aurkeztuta: IVAPek emandako ziurtagiria; edo azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denak-ezarritakoaren arabera, baliokideak diren beste ziurtagiriak edo agiriak.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzerakoan C1C1 HE egiaztatuta zeukaten izangaiek gerora C2C2 HE egiaztatzen badute, dagokion egiaztagiria aurkeztu ahal izango dute oposizio aldia amaitzen den arte.

*Zortzigarrena. Lehiaketa fasea.*

Lehiaketa-fasean, oposizio-fasea gainditu dutenen merezimenduak aztertu eta baloratuko dira.

Lehiaketa aldia ez da baztertzailea izango, eta bertan lortutako puntuazioa ezingo da aintzat hartu oposizio faseko ariketa gainditzeko.

Oposizio aldiaren behin betiko emaitzak argitaratzearekin batera, 3 egun balioduneko epea emango da oposizio fasea gainditu duten hautagaiek merezimenduak egiaztatzeko.

Dena dela, eskaerak aurkezteko azken egunaren aurretik lortutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira; beti ere, eskabidean aipatu badira (3.4. apartatuan aurreikusitako moduan).

6.2.5. Tras la publicación de las calificaciones de los ejercicios las personas aspirantes dispondrán de un plazo de 3 días hábiles para solicitar la revisión de los ejercicios o para presentar reclamaciones que consideren oportunas.

Finalizado este plazo y, en su caso, resueltas las reclamaciones que se hubieran presentado, el tribunal hará públicos los resultados definitivos de la prueba.

6.2.6. Las publicaciones de resultados se darán a conocer en los lugares indicados en la base 4.

6.3. Ejercicios de la fase de oposición.

— Primer ejercicio de la fase de oposición: prueba teórica, obligatoria y eliminatoria.

En el tiempo que determine el Tribunal, se deberá responder por escrito a un cuestionario de respuestas alternativas, siendo solo una de ellas correcta.

Las preguntas se referirán a las materias que se adjuntan en el anexo I de las bases de la convocatoria.

Este ejercicio se valorará sobre un máximo de 100 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 50 para superarlo. No obstante, si el 40 % de las personas aspirantes presentadas no alcanzara dicha puntuación mínima, esta vendrá determinada por aquella que suponga la aprobación del 40 % de las personas aspirantes presentadas. En este caso, todas las personas que obtengan dicha puntuación mínima superarán este ejercicio.

En este ejercicio cada error restará un tercio del valor del acierto, es decir, por cada tres respuestas erróneas se descontará el valor de un acierto. Las respuestas en blanco y las respuestas dobles no se considerarán errores.

— Segundo ejercicio de la fase de oposición: prueba teórica-práctica, obligatoria y eliminatoria.

Se deberá contestar a casos prácticos y/o preguntas teórico-prácticas sobre los temas incluidos en el temario del anexo I.

Este ejercicio se valorará sobre un máximo de 50 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 25 para superarlo.

*Séptima. Euskera.*

El nivel de conocimiento de euskera exigido se acreditará mediante la aportación de alguno de los siguientes documentos que justifican la posesión del correspondiente perfil lingüístico (PL C2C2 o C1C1): certificación expedida por el IVAP u otros certificados o documentos equivalentes, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Las personas con PL C1C1 en el momento de finalización del plazo de presentación de instancias, que posteriormente acrediten el PL C2C2, podrán presentar el correspondiente documento justificativo hasta que concluya la fase de oposición.

*Octava. Fase de concurso.*

La fase de concurso consistirá en el examen y valoración de los méritos de quienes hayan superado la fase de oposición.

La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio y las puntuaciones obtenidas en la misma no podrán tenerse en cuenta para superar el ejercicio de la fase de oposición.

Con la publicación de los resultados definitivos de la fase de oposición, se establecerá un plazo de 3 días hábiles para que los y las candidatas que hayan superado la fase de oposición acrediten los méritos.

En todo caso, solo se valorarán los méritos anteriores al último día de presentación de solicitudes, siempre que hayan sido alegados en la instancia (en los términos previstos en el apartado 3.4).

EK\CV GAO-I-2025-08192

Ondorengo merituak baloratuko dira:

